

Liburuak

KRITIKA

Malenkonía arabiar bat.

Abdela Taia.

Alberdania. 112 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



Nitasunetik kontzientziaren eraikuntzara

Abdela Taia idazle homosexuala eta marokoarra dugu, nahiz eta azkeneko hamarkadan bere nortasuna Parisen berregiten ari. Berreraikitze horren beste saiakera bat bezala ikusi beharko genuke haren azken nobela, *Malenkonía arabiar bat*: intimista, narrazio poetikoa, telegrafikoa, fragmentarioa.

Nortasunaren edo kontzientziaren eraikuntzaren paradigma dira nobelak dituen gogoetarako atalak: Oroit naiz, Idatzi... Batetik, gogoratu beharra dauka eta bestetik, memoria eraiki, kode berrian gainera. Izan ere, Marokon homosexualitatea zigortua baitago kartzelarekin. Taiak bere homosexualitatea denen aurrean agertzea, lau haizetara idaztea erabaki du. "Marokon nire lotsa izan daitekeena zerbait indartsua bilakatu nahiko nuke, (...) ez dut homosexualitatea tribializatu nahi, (...) eta moda sinple bihurtu, zerbait iraultzailea izatea nahiko nuke" (*El País*, 2006).

Beraz, egilearen nahiak fikzioa eta errealtatea nahastera garamatza. Ez dakigu noiz ari zaigun Abdela Taia bere bizitza kontatzen, noiz Abdela protagonistaren egiteak idazten. Kontatu nahi duena eta bizi izandakoa nahita edo nahi gabe etengabe nahasten dituelako.

Salé-n, Rabat ondoan, familia xume batean jaio zen Taia, eta Genevan eta Sorbonan ikasi zuen. Bost liburu ditu dagoneko idatziak eta ez du aukerarik galdu homosexualitateaz jarduteko, eta giro homofobia nahiz kultura arabiarrek bizi duen matxismoa salatzeke.


Abdela Taiak ohean ematen ditu ordu gehienak Patxi Zubizarretak itzulitako eleberri honetan, maitasunaren usainarekin eta izerdiarekin irakurleak liburuaren orrialdeak bustitzeraino. Herri sentsuala, giro arabiarra, bizitutako maitasun abaniko zabala eskaintzen digu, Taiak. Haurren artean hain ohiko diren jolasak. Klean *noniba*, nork bere burua besteari eskaintzea. Bortxaketak, maitasunaren diktadurak. Beti ere gizonen artean. Izan ere, nobela honetan emakumerik apenas agertzen den. Emakumeen arteko harremanen nahiz bestelako harremanen inguruan isiltasuna da nagusi. Amak existitzen dira, halere: Hai Salameko emakume indartsuak, tradizionalak, arauen mendeko direnak. Ez da gutxi.

Bukatzeko, Abdelak arabiar kulturari beste begi batzuekin so egiteko proposatzen digu, kantuen, literaturaren, zinemaren, musikaren edo artearen bidez, arabiar munduarekin lotura duen intertestualitate oparoa eskainiz. Alberdaniak argitaratu berri duen liburua aski interesgarria suertu dakiguke, hain juxtu ere, arabiar kulturara zertxobait hurbiltzeko eta bidenabar harreman periferikoen ganean gogoeta egiteko. Hori bai! Arestian esan lez, harreman askeen aldarri izan daitekeen memorandum poetiko honetan pertsonaia femeninoen falta sumatuz. Agian gizonetako protagonista aski femeninoa delako? Edota feminitatearen eta maskulinitatearen arteko mugak zalantzan jartzen dituelako? ■

Bi urteko umeentzat egindako 40 kanta

Imanol Urbietak 40 kanta berri bildu ditu *Txanpirrin pintxona* liburuan. Bi urteko haurrentzat bereziki egindakoak dira, egileak liburuaren hitzaurrean dioenez. Adin horretan, aurrerantzean bezala, gorputza da esperientziak barneratzeko bide erosoena: jolasari ekiten

dionean, umeak inguruarekin bat etorri nahi badu, beharrezkoa izango du hanka-besoan, eta gorputz-atal guztien partaidetza. Abentura horri ekiteko aproposak dira Urbietaren kanta berriok. Egileak 75 urte ditu, eta adin horretan, bere esanetan, inoiz baino ulergarriagoa egiten zaio bi urteko haurtxoa. ■



Txanpirrin pintxona.
Imanol Urbiet.
Elkar.
45 orrialde.
12,50 euro.

Gaztelaniazko Irun Hiria nobela saria

Luis del Romero valentziarrak irabazi zuen iaz Kutxak antolatzen duen Irun Hiria literatur saria gaztelaniazko nobela atalean. Horri esker ikusi du argia *Manjar blanco* izeneko eleberri honek. Amodiozko istorio bat da nobelaren ardatza, baina idazleak kontakizunean tartekatu ditu gastronomiari buruzko aipua eta Erdi Aroko liburuei buruzkoak. Ez da del Romeroren aurreko nobela: hainbat sari irabaziak ditu Espainian, besteak beste Ateneo de Valladolid eta Gabriel Sijé sariak. Bost ipuin libururen egilea da, bi nobela labur ditu klean (*Ojos* eta *El*

Espejo de Salomón) eta nobela luze bat, *El Daguerrotipo*. ■



Manjar blanco.
Luis del Romero.
Kutxa.
173 orrialde.
10 euro.